

BAZKIDEON BATZAR NAGUSIA

**Asamblea General
de Socios/as**



BIZI DUGUN EGOERAZ, BI HITZ

Josu Etxaburu

Sei hilabete dira birus batek gure bizitzak hankaz gora jarri zituenetik, eta oraindik ere, kostata ari gara gure tokia bilatzen bizi dugun panorama arraroan. **Ziurgabetasunez beteriko garaia** da, ez baitakigu bihar-etzi zer etorriko zaigun, eta nola egongo garen. Eta, era berean, esan dezakegu **ziurtasunak ere baditugula**, krisiak gelditzera eta hausnartzera eraman gaituela, eta aurrez genituen hainbat ideia berresteko eta beste batzuez jabetzeko ere balio izan digula.

Osasun krisiaren kudeaketak agerian utzi du **zein ahula den gure herriaren autogobernua**. Estatuek krisia neurri zentralizatzailerak ezartzeko erabili dute; eta honela, egoera larrienei erantzuteko egokienak gobernu zentralak direla sinestarazi nahi izan digute. Euskal Herrian gure osasun sistema propioak kudeatzeko gai gara normaltzat jo dezakegun egoera batean, baina antza denez, pandemia baten aurrean, ez; orduan, hobe Madril eta Parisetik aginte bakarra ezartzea. Birusak ez omen du mugarik... Irun eta Hendaia artekoa bezalako horiek izan ezik.

Eta krisia globala bada ere, nazioartera begiratzen badugu, argi eta garbi ikus dezakegu honi erantzuteko hamaika modu daudela, eta guk, gurea aukeratzeko gaitasuna nahi dugu. Ez gehiago, eta ez gutxiago. **Burujabetza kilometro zero sustatzeko garaia da**. Bertako burujabetza. Aurrean ditugun erronkei bertako erantzun eta konponbideak emateko. Norabidea bertatik markatzeko. Politika publikoak bertatik garatzeko. Komunitate politikoak ahalduzko garaia da. Burujabe jokatzeko unea. Orain inoiz baino gehiago. Asko dago jokoan, orain hartzen diren erabakiek gure etorkizuna determinatu baitezakete. Ezbairik gabe, krisialdi honek oinarrian duen gabezia nagusietako bat da **erabakitzeko ahalmen falta**; horregatik, erabakiak hemen eta herritarrok hartzeko premia biderkatu du eta baita gure determinazioa hori lortzeko bidean.

Zazpi urte ez baitira alferrik igaro. Erabakitzeko eskubidearen gaia **gatazkagai izatetik agenda politikoaren erdigunean** kokatzea lortu dugu herritarrok, gizarte zatitu bat ehunduz, burujabetzan sakonduz eta ekintza kolektiboan indarra jarritz. Eta hara non, lortu dugu erabakitzeko tresna geureganatu eta erabiltzen hasia, edota 175.000 lagun giza-kate batean mobilizatu eta EAEko estatus berriaren oinarrien inguruko adostasunetan eragitea. Ez dugu kasualitateetan sinesten, ziurgabetasun garaietan ere, **aukerak guk geuk sortzea** baino ziurtasun handiagorik ez baitago.

Beste etorkizun bat posible dela sinetsi dugu, eta etorkizun hori, herri hori, elkarrekin erabakiz eraiki nahi dugu. Krisialdi honek erakutsi dizkigun atzerapausoen aurrean, guk diogu gure bidean ez dugula pauso bakar bat ere atzera egingo; alderantziz, **bide berriak urratzeko prest** gaude.

EGOERA POLITIKO-INSTITUZIONALAZ

Amalur Alvarez

Erabakitzeko eskubidea **modu eraginkorren legeztatze**ko legealdia izan behar da datorrena Araba, Bizkai eta Gipuzkoan. Gure posizioa gai honetan argia da, beti izan duguna da: estatus politiko berri bat behar dugu, erabakitzeko eskubidea izango duena ardatz, eta herritarrok prozesuaren oinarri. Horretarako, ezinbestekoak ditugu **herri perspektiba, borondate politikoa eta akordio zabalak**. Aukera historiko hau galtzea akats larria litzateke.

Guk **gure esku dagoen guztia egingo dugu**. Lortu dugu estatus berriaren oinarrien inguruko adostasunetan eragitea; eta orain, lortu behar da Legebiltzarretik aterako den testuak erabakitzeko tresna eraginkorrak legeztatzea. Ezin dugu hori baino gutxiago onartu; ezin dugu formula erretorikorik onartu. **Erabakitzeko tresna eraginkorrak behar ditugu**.

Erabakitzeko eskubidearen gaia ezin da alderdien arteko aritmetiken menpe jarri; gizartearen gehiengo zabal baten babesa dauka, eta ordezkari politikoei dagokie **adostasun zabal hori lege bihurtzea**. Gure Eskuren egitekoa izango da, alderdien arteko lehia eta tirabiren gaintetik, gehiengoaren nahia errespetaraztea. Horretarako, aurreikusten dugu alderdiekin interlokuzioa mantentzea eta Legebiltzarrean agerraldi bat egitea; baina ezinbestekoa izango da, horrekin batera, **mugimendua aktibo egotea**, eta Hamaika Gara ekimenari berrekitea. Gure indargunea hori da.

Bestalde, erabakitzeko eskubidearen gaia ezin dugu bereiztu Kataluniako agendatik. **Kataluniako Mahai Politikoa** berriz aktibatuko da, eta adi jarraituko dugu, erabakitzeko eskubidea egikaritzeko zabaldu litekeen edozein lehio probesteko.

Nafarroari dagokionez, berriz, asmoa dago **autogobernuaren inguruan eztabaida zabaltzeko** eta gure asmoa da bertako eragileekin biltzen segitzea, erabakitzeko eskubidea eztabaida horretan nola kokatu konpartitzeko.

Era berean, batzar berezi bat egingo dugu hilak 26an, hiru helburu nagusirekin: **Nafarroan erabakitzeko eskubidearen eta burujabetzaren espazioa berregituratzea**, bertan lurraldetutako diskurtsoa osatzea, eta diskurtso hori zabaltzeko ekintza plan integral bat garatzea. Dei egiten dizuegu ikusten ariko zareten nafarrei bertan parte hartzera.

Eta **Iparralden**, zer? **Herri Elkargoaren etorkizunaren inguruan gogoeta prozesu batean sartuta** daude, lurralde kolektibitatera jauzi instituzional bat egiteko, eta horretan galdeketek zer nolako eginkizuna bete dezaketen aztertzen. Arretaz jarraituko dugu prozesua. Horrez gain, bertako eragileekin harremanetan gaude egitasmo komunak eraikitze aldera, batez ere, Lurralde Garapen Kontseiluarekin.

Azpiko logika berdina da lurralde guztietan. Erritmoak ezberdinak dira, baina erabaki-gaiak ere, baina denetan ari da **kultura demokratiko bera** lantzen, funtsean, "**hemen erabaki, herritarrok erabaki**" hori.

GURE BIDEAZ: hemen erabaki, herritarrok erabaki!

Amalur Alvarez

Burujabetza kilometro zero sustatu behar dugu, Josuk aipatu duen bezala, aurrean ditugun erronkei tokiko erabaki burujabeekin erantzuteko. Guk argi dugu eredu publikoa indartzeko garaia dela, elkarlan komunitarioaren defentsa egitekoa, eta komunitatean oinarritutako gizarte eredu bat eraikitzekoa.

Jabetzen ari gara **pandemiarekiko erantzuna**, hein handi batean, herritarrok hartzen dugun **erantzukizunean oinarritzen dela**, eta hala izanik, Gure Eskun, ulertzen dugu beharrezkoa dela herritarron erabakitzeko gaitasuna ere handitzea; bestela, bi gauza gertatzeko arriskua dago -eta jada gertatzen ari dira-: batetik, hartutako erabakiak ez dira gure beharretara ondo egokitzen; eta bestetik, gure instituzioek hartutako neurriak ez ditugu gure sentitzen eta hain beharrezkoa dugun esparru publiko eta kolektibo hori geroz eta urrunago ikusten dugu.

Adibidez, ikasturtea hasi berri dugu, eta ez da erraz ulertzen zergatik ez den posible izan hezkuntza alorreko eragileekin adostea zein baliabide indartu eta zein segurtasun neurri hartuko ziren. Badirudi greba baten atarian jarrera aldaketa batzuk egon direla, baina ez da zentzuzkoa orain arte adostasun hori ez

bilatu izana. Bizi duguna bezalako egoera baten aurrean, **alor ezberdinetako eragileen eta instituzioen arteko elkarlana estuagoa** izan beharko litzateke.

Bide horretan, jada martxoan abiatutako egitasmoa indartzeko asmoa dugu, hots, **Hamaika Gara ekimena**. Dinamikak helburu nagusizat du, erabakitzeko eskubidea herritarren eskaera eta aldarrikapen anitzak bideratzeko tresna izan daitekeela ikustaraztea. Osasun krisia eta krisi ekonomikoa lehentasunezkoak dira, bai, baina lotura zuzena dute autogobernu mailarekin eta gobernantza ereduarekin. Gure bizitzetan eta komunitatean eragiten duten auziei nahi eta behar ditugun **erantzunak emateko tresnak** behar ditugu.

Gure asmoa da datozen aste eta hilabeteetan ideia horri lotutako diskurtso eta praktikak sustatzea eta erabakitzeko tresnen eskaerarekin eta erreferendumaren aldeko **sinadura bilketarekin lotzea**. Zehazki, udazkenari begira, hauek dira ekintza nagusiak:

- **Urriak 31:** Ekitaldi kultural-politikoa. Goizez grabatuko dugu eta arratsaldean emititu. Gure helburua da herriak egun berean ere mobilizatzea, adibidez, herriz herri ikustaldiak antolatuz edota ekintza propioak antolatuz.
- **Urri eta azaroan:** herriz-herri bilerak eta aurkezpenak zein hitzaldi telematikoak Hamaika Gara-ko eragileekin elkarlanean. Sinadura bilketa sustatu eta Tripontzia, eskumuturrekoak eta *merchandising*-a saldu.

Guzti hau esanda, badakigu ez dela garai onena izango ekintza kolektiboa sustatzeko. Izan ere, hormak eta harresiak jarriko dizkigutela aurreikusi dezakegu -batzuetan, halabeharrez, eta beste batzuetan, akaso, interesez ere bai-. Ondorioz, gure helburu propioez gain, **eskubide zibil eta politikoak defendatzeko garaia** ere izango da. Hala ere, gure helburuak argi ditugu eta ez dugu dudarik, eta horiek lortzeko bide berriak urratzeko prest gaude.

KONTU EKONOMIKOAK

Jexux Olaziregi

2019ko balantzea eta emaitzak

EGOERA BALANTZEAK							
AKTIBOA		2018	2019	PASIBOA		2018	2019
1. Finantzaketa basikoa		139,391.72	185,268.98	40. Hornitzaileak		74,032.09	88,141.60
46. Langilegoa		287.50		41. Hartzekodunak		104,907.08	87,577.72
56. Abalak		61,509.86	97,126.00	46. Langilegoa		0.00	53,871.83
57. Kontu korranteak		14,183.00	20,654.12	47. Ogasuna		27,542.37	39,025.90
				48. Herri fondoak		0.00	59,009.35
Emaitzak		45,877.26	37,577.30	55. Finantzarioak		54,767.80	13,000.00
		261,249.34	340,626.40			261,249.34	340,626.40
EMAITZAK							
ZOR		2018	2019	HAR		2018	2019
60. Erosketak		535.50	26,886.49	70. Salmentak		184,020.40	15,101.32
62. Kanpoko zerbitzuak		978,570.42	222,457.54	74. Laguntzak		1,131,479.23	541,272.69
63. Zergak		14,255.02	734.27	77. Bereziak		35,601.04	0.00
64. Langilegoa		314,989.11	249,873.01			1,351,100.67	556,374.01
67. Bereziak		88,627.88	94,000.00	GALERAK		45,877.26	37,577.30
		1,396,977.93	593,951.31			1,396,977.93	593,951.31

Urteetako bilakaera

Zor historikoaren bilakaerari dagokionez, urteetan zehar jaisten joan gara. Hasieran 523.949,20 euroko zorra genuen, gaur egun berriz, 83.884,71 eurokoa. **Hasierako zorraren %84a ordaindu dugu** eta gure asmoa datozen hilabeteetan zorraren ehuneko ehuna ordaintzea da.

Gure Esku sortu zenetik **herritarrok 4.000.000 euro baino gehiago eman** ditugu proiektu honetara. Beraz, argi ikusten dugu erabakitzeke eskubidea lortzeko bidean herritarren babesa eta bultzada ezinbestekoa dela. Bestetik, hainbat diru eman izanak herri honetan erabakitzearen alde borondate handia duen masa kritiko zabala dagoela erakusten du.

Liberatuen egoera pandemian

Gure Eskuren diru kontuak azken urteetan nahiko ahulak izan dira, horren jakitun bazkide guztiak gara. Ondorioz, aurreikus zitekeen Covid-19ak eta berekin ekarri duen krisiak Gure Esku ere kolpatuko zuela. Horren aurrean hainbat neurri hartu

ziren: batetik, **gastuak murriztu** ziren, eta bestetik, **langileen soldata bi herenera jeitsi zen** (aurrerago euren den diru hori itzultzeko asmoarekin). **Ahalik eta azkarren langileei soldata osoa berrezarriko zaie.**

Aurreikusiak geneuzkan **bi kontratazio atzeratzea erabaki du Gure Eskuko zuzendaritzak**. Egoerak bultzatuta Nafarroako zein Gipuzkoako arduradunen kontratazioa urtarrilera arte gutxienez atzeratuko da. Datozen hilabeteetan hutsune horiek gainontzeko liberatuen artean beteko dituzte.

Tripontziaren planteamentua

Covid-19ak sortu duen ziurgabetasunak Tripontziari ere eragin dio, eta neurri kontserbatzaileak hartzea erabaki dugu. Planteamentua egokitu egin dugu.

- Zozketa eguna: 2021-01-18
- Txartelaren prezioa: 5€
- Zenbakiko 8 serie, 25.000 zenbaki
- 52.000€ saritan

Ziurgabetasunak sortzen duen kezkatik dator moldaketa hau. Gure Eskuren egoera ekonomikoa hain ahula izanik, **sarien kopurua eta banatzen genuen dirua murriztea erabaki dugu**. 30.000 euroko sari nagusia zenbaki eta serie irabazleari, 2.000 euro zenbaki horretako gainontzeko serieei eta 1.000 euro bigarren zenbaki bateko serie bakoitzari.

Kulturgintzari ekarpena

Egoera hau denontzat da oso gordina eta Gure Esku horretaz jakitun da. Tripontzia Gure Eskuren jarduna finantzatzeaz gain, herri honetan **burujabetza proiektuetan dabilzanentzat ardatz finantziario** bilakatzearen anbizioarekin jaio zen. Eta pausu hori emateko unea dela iruditzen zaigu.

Hori dela eta, **irabazien zati bat kulturgintzako proiektu batera bideratuko dugu**. Kulturgintzaren ekosistema sendotu eta ikuspegi estrategikoa emango dion proiektu batera bideratuko dugu zati hori. Izan ere, Gure Esku ekosistema horren parte da.

Iaz aukera bat sortu zitzaigun, Etxarri eta Beasaingo ikastolek Tripontzia saldu nahi zuten euren sareetan. Bi ikastolekin kolaborazio akordio bat egin genuen, **saldutako txartel bakoitzeko euro eta erdi eurentzat** izango zen. Bi esperientziak arrakastatsuak izan ziren eta jada Beasaingo ikastolak aurten errepikatzeko asmoa duela jakinarazi digu. **Bide honetan sakondu nahiko genuke**, beraz, halako aukerarik sortuz gero, gurekin harremanetan jarri.

ZUZENDARITZA BERRITZEKO BARNE ARAUDIA

Lorea Hernandez

Gure Eskuren Zuzendaritza beti izan da espazio irekia. Kideok mugimenduan inplikatu eta interesa erakutsi ahala, oso era naturalean joan izan gara batzen. Edonola ere, herrietako kideok zuzendaritzan **parte hartzea**, eta beti positiboa d e n **erreleboa egotea erraztu** nahiko genuke. Horregatik, eta iaz Euskaldunako batzarrean hitz eman bezala, Zuzendaritza Berritzeko Barne Araudia osatu dugu. Segidan duzue:

Kontseiluko kideak bazkideek hautatuko dituzte segidan azalduko den prozesuaren arabera. Kargu horiek 4 urterako izendatuko dira Batzar Orokorrak berriaz baliogabetu ezean, gure estatutuek adierazten dutenari jarraiki. Lau urteren buruan beren kargua berretsi beharko da. Hobetsiko da, salbuespenik ezean, bi urtean behin egitea hauteskundeak Kontseiluko kideen erdia hautatzeko, tartean urteko bajak betetzeko prozesuak garatu ahal izango direlarik.

A) HAUTESKUNDEEN DEIALDIA

Kontseiluak Batzar Orokorrerako deia egin behar du eta iragarri behar du, batzarra egin baino 30 egun lehenago gutxienez. Batzarra larunbatean edo Euskal Herri osoan jaieguna den egun batean egingo da. Epeak egun naturaletan kontatuko dira. Kontseiluak, deialdia egiten duenean, hauteskunde prozesua nola gauzatuko den erabakiko du: bozketaren ordutegia, mahaiak eratzea, bozken balidazioa zehazteko irizpideak...

Deialdia egiten denean, Kontseiluak Hauteskunde Batzorde bat izendatuko du. Batzorde horretan hautagaitzara aterako ez den idazkariak (kargu hori hautatuz gero, diruzainak beteko du, eta alderantziz) eta Kontseiluak hautatutako bi kidek osatuko dute. Hauteskunde Batzordea arduratuko da erregelamendu hau betearazteaz. Hauteskundeetarako deialdian nahitaez zehaztu beharko dira gai zerrenda, bozketak zein egun eta ordutan egingen diren, parte hartzeko aukera telematikorik egonen den eta hautatu beharreko karguak. Azken honi dagokionez, bete beharreko karguak erabakitzerako orduan, genero berdintasuna bermatu beharko da eta lurraldetasun irizpideak aintzat hartu, bateko eta besteko minimoak zehaztuz. Horrela, momentu bakoitzean leudekeen kideen arabera zehaztuko genituzke irizpide bateko zein besteko kopuru minimoak. Deialdi hau bazkideei bidaliko zaie erakundearen komunikabideen bidez. Deialdiaren egun berean, elkarteko idazkaritzan utziko da botoa emateko eskubidea duten bazkideen zerrenda.

B) HAUTAGAITZEN AURKEZPENA

Hautagaitza bat aurkezteko, beharrezkoa da elkarteko bazkideak izatea, gutxienez 6 hilabeteko antzinasunarekin, bozkatzeko eskubidea izatea eta gutxienez belarri prest izatea. Hautagaitzak osatu gabeak izan daitezke eta bozkatzeko sistema zerrenda irekia izanen da. Zuzendaritza Kontseilua osatzen duten hautagaien kasuan beren karguari uko egin beharko diote hautagai-zerrenda batean sartu baino lehen. Hautagai-zerrenda aurkezten duen zerrendaren idazkian hautagaien izenak, zein kargutara aurkezten diren eta haien sinadura agertuko dira. Idazki hori elkartearen idazkaritzan aurkeztuko da, deialdia egin eta hamar eguneko epean. Hautagai-zerrenda bakoitzak artekari bat eta haren ordezkari bat izenda ditzake hauteskunde-mahaian. Bi pertsonak boto eskubidea izan behar dute eta ezin dira hautagai izan. Formalki aurkezten diren hautagai-zerrendek eskubidea dute bazkideei beren lan-programaren berri emateko hauteskundearen aurretik, elkartearen komunikabideen bidez. Kontseiluak, hautagaiek proposaturik, arrazoizkoak diren programak eta jakinarazpenak helarazi behar dizkie bazkideei.

C) HAUTAGAITZEN ONARPENA

Hautagaiak aurkezteko epea bukatuta, Hauteskunde Batzordeak proposatuta, Kontseiluak hauteskunde-prozesuaren baldintzak betetzen dituzten zerrendak onartuko ditu, jendaurrean jarri eta hauteskunde-prozesuan ezarritako irizpideak betetzen ez dituztenen baliozkotasuna ukatuko du. Hauteskundeak baino hamabost egun lehenago, hauteskunde prozesua jendaurrean jarriko da, entitatearen komunikabideen bidez.

D) BOZKETA

Hautagaitzak onartzen direnean, erakundearen lurralde-egoitzetan (edo hauteskunde deialdian zehaztutako gunetan) botoa emateko ordutegi eta egunen berri emango da, baita telematikoki bozkatzeko aukera egotekotan. Batzar Orokorra egiten den egunean, Batzarra egiten den lekuan bakarrik bozkatzeko ahalgo da. Hautapenaren lehen egunean, hauteskunde-mahaia eratuko dira, honela banatuta: Elkarteko lehendakaria edo bere ordezkaria, mahaiburu gisa; idazkaria, mahaiko idazkari gisa; eta Kontseiluko beste bi kide, eta, bertan egonez gero, izendatutako artekariak, edo horien ordezkariak. Ondoren, bozketa hasiko da, eta gutxienez mahaiko bi kide egon beharko dira bertan momentu oro. Lehendakaria kanpoan bada, kanpoan den bitartean bere

eginkizunak beteko dituen norbait izendatuko du. Elkarteak argitaratzen dituen boto-txartelen bidez edo Kontseiluak deialdia egitean izendatzen dituen beste bide batzuen bidez baino ezin da bozkatu. Bazkideek beren nortasuna egiaztatu beharko dute mahaiko kide gehienen iritziz aski den egiaztagiri ofizial batekin. Mahaiak egiaztatu behar du boto-emailea, boto-eskubidea duten bazkideen zerrendan dagoela. Bozketa deialdian ezarritako orduan itxiko da. Hautagaitza bakarra aurkezten bada, Kontseiluak erabakiko du bozketaren ordutegia murriztea. Ordua iritsita, Hauteskunde Mahaiko lehendakariak bozketa bukatutzat emango du eta, ondoren, mahaikideek, artekariak eta ordezkoei botoa emango dute. Bozkek zenbatuko dira.

E) HAUTAGAITZAREN IZENDAPENA

Kontaketa bukatuta, akta egingo da, mahaia osatzen duten pertsonak eta artekariak eta ordezkoei pertsonak sinatua. Mahaiburuak argitara emango du emaitza, eta kargu bakoitzerako boto gehien lortu dituzten hautagaiak izendatuko ditu. Hautagaitzaren bat emaitzarekin ados ez egotekotan, bi egun edukiko ditu Hauteskunde batzordearen aurrean errekurtsioa jartzeko eta honek beste bi egun auzia ebatzi eta erabakia argitaratzeko.

EN CASTELLANO

SOBRE LA REALIDAD QUE VIVIMOS

Josu Etxaburu

Hace seis meses que un virus puso patas arriba nuestras vidas, y todavía nos cuesta trabajo buscar nuestro sitio en el extraño panorama que vivimos. **Es un tiempo lleno de incertidumbres**, porque no sabemos qué nos vendrá mañana, y cómo estaremos. Y también podemos decir que **tenemos certezas**, que la crisis nos ha llevado a parar y a reflexionar, y que también nos ha servido para reafirmar algunas de las ideas que teníamos anteriormente y para darnos cuenta de otras.

La gestión de la crisis sanitaria ha puesto de manifiesto **lo débil que es el autogobierno de nuestro país**. Los Estados han utilizado la crisis para establecer medidas centralizadoras; y así nos han querido hacer creer que los gobiernos centrales son los más adecuados para responder a las situaciones más graves. En Euskal Herria somos capaces de gestionar nuestros propios sistemas de salud en una situación que podemos considerar normal, pero al parecer, ante una pandemia, no; entonces, mejor establecer un mando único desde Madrid y París. Dicen que el virus no tiene límites... salvo esos como la muga entre Irun y Hendaia.

Y aunque la crisis es global, si miramos a la comunidad internacional, podemos ver claramente que hay infinidad de formas de responder a esto, y nosotros, queremos la capacidad de elegir la nuestra. Ni más ni menos. Es hora de promover **una soberanía kilómetro cero**. La soberanía local. Para dar respuesta y soluciones a los retos a los que nos enfrentamos. Marcar el rumbo. Desarrollar políticas públicas. Es hora de empoderar a las comunidades políticas. Momento de ejercer la soberanía. Ahora más que nunca. Hay mucho en juego, ya que las decisiones que se toman ahora pueden determinar nuestro futuro.

Una de las principales carencias de esta crisis es la **falta de capacidad de decisión**, lo cual ha multiplicado tanto la necesidad de tomar nuestras decisiones aquí y entre todas y todos, como nuestra determinación en el camino para llevar a cabo nuestro objetivo. Siete años no han pasado en vano. Desde la ciudadanía hemos conseguido **situar el derecho a decidir** – hasta hace poco un tema conflictivo – **en el centro de la agenda política**; tejiendo una sociedad dividida, profundizando en la soberanía y fortaleciendo la acción colectiva. Y así, hemos conseguido hacernos con la herramienta de las consultas y empezar a utilizarla, o influir en los acuerdos sobre las bases del

nuevo estatus de la Comunidad Autónoma Vasca, a través de una cadena humana de 175.000 personas. No creemos en las casualidades. Incluso en tiempos de incertidumbre, **no hay más certeza que crear nuestras propias oportunidades.**

Creemos que otro futuro es posible y queremos construir ese futuro decidiendo juntas y juntos, como pueblo y como país. Ante la regresión que ha evidenciado esta crisis decimos que no vamos a retroceder ni un solo paso, al contrario, estamos preparadas para **explorar y recorrer nuevos caminos.**

SOBRE LA SITUACIÓN INSTITUCIONAL

Amalur Alvarez

La próxima legislatura debe ser **la legislatura para legalizar de forma efectiva** el derecho a decidir en Araba, Bizkaia y Gipuzkoa. Nuestra posición en este tema es clara, es la que siempre hemos tenido: necesitamos un nuevo estatus político que tenga como eje el derecho a decidir y a la ciudadanía como base del proceso. Para ello, es imprescindible tener una perspectiva de país, voluntad política y amplios acuerdos. Perder esta oportunidad histórica sería un grave error.

Nosotras vamos a hacer todo lo que esté en nuestras manos. Hemos conseguido incidir en los consensos en torno a las bases del nuevo estatus; y ahora, hay que conseguir que el texto que salga del Parlamento regule los instrumentos eficaces para decidir. No podemos aceptar menos que eso; no podemos aceptar fórmulas retóricas. **Necesitamos herramientas eficaces para decidir.**

El tema del derecho a decidir no puede ser sometido a las aritméticas entre partidos; cuenta con el apoyo de una amplia mayoría de la sociedad y corresponde a los representantes políticos **convertir ese amplio consenso en ley.** Será tarea de Gure Esku, hacer respetar la voluntad de la mayoría por encima de rivalidades y tensiones entre partidos. Para ello, prevemos mantener la interlocución con los partidos y una comparecencia en el Parlamento; pero será imprescindible, junto con ello, **que el movimiento esté activo**, y que se reanude la iniciativa Hamaika Gara. Nuestro punto fuerte es ése.

Por otra parte, no podemos hablar del derecho a decidir sin comentar la agenda catalana. **La Mesa Política de Cataluña** se reactivará, y seguiremos atentas, a cualquier expectativa que se pueda abrir para ejercer el derecho a decidir.

En cuanto a **Nafarroa**, sabemos que hay voluntad de **abrir un debate sobre el autogobierno** y nuestra intención es seguir reuniéndonos con diferentes

agentes para compartir cómo situar el derecho a decidir en ese debate.

Asimismo, vamos a celebrar una asamblea especial el día 26, con tres objetivos principales: **reestructurar el espacio del derecho a decidir y la soberanía en Nafarroa**, construir un discurso propio y desarrollar un plan de acción integral para difundir ese discurso. Os invitamos a participar en esa asamblea a todos los navarros y navarras que estéis conectados.

¿Y que pasa con Iparralde? Están inmersos en **un proceso de reflexión en torno al futuro de la Mancomunidad**, para dar un salto institucional a la colectividad territorial, en el tienen intención de analizar el papel que pueden desempeñar las consultas. Vamos a seguir con atención el proceso. Además, estamos en contacto con agentes de Iparralde para construir proyectos comunes, sobre todo, con el Consejo de Desarrollo Territorial.

La lógica subyacente es la misma en todos los ámbitos territoriales vascos. Los ritmos son diferentes, incluso los temas de decisión, pero en todos se está trabajando en **la misma cultura democrática**, fundamentalmente la idea de que queremos decidir aquí y que queremos decidir desde la ciudadanía: *hemen erabaki, herritarrok erabaki*.

OBJETIVO: *hemen erabaki, herritarrok erabaki!*

Amalur Alvarez

Debemos promover **una soberanía kilómetro cero**, como ha mencionado Josu, para así poder responder a los retos que tenemos por delante tomando nuestras propias decisiones. Nosotras tenemos claro que es hora de reforzar el modelo público, de hacer defensa de la colaboración comunitaria, y de construir un modelo de sociedad basado en la comunidad.

Estamos tomando conciencia de que **la respuesta a la pandemia** se basa, en gran medida, en la **responsabilidad que asume la ciudadanía**, y como tal, en Gure esku, entendemos que es necesario también aumentar la capacidad de decisión de ésta; de lo contrario, corremos el riesgo de que ocurran dos cosas -que, de hecho, ya están ocurriendo-: por un lado, las decisiones tomadas no se adaptan bien a nuestras necesidades; y por otro lado, las medidas adoptadas por nuestras instituciones las vemos y sentimos cada vez más lejanas, perjudicando el espacio público y colectivo que es tan necesario.

Por ejemplo, acabamos de empezar el curso y no se entiende fácilmente por qué no ha sido posible acordar con los agentes del ámbito educativo qué recursos se iban a reforzar y qué medidas de seguridad se iban a adoptar. Parece que a

las puertas de una huelga ha habido algunos cambios de actitud, pero no es razonable que hasta ahora no se haya buscado ese consenso. Ante una situación como la que vivimos, **la colaboración entre agentes e instituciones de diferentes ámbitos debería ser más estrecha.**

En ese sentido, tenemos previsto reforzar **la iniciativa Hamaika Gara** que ya se puso en marcha en marzo. La dinámica tiene como objetivo principal hacer ver que el derecho a decidir puede ser un instrumento para canalizar las múltiples demandas y reivindicaciones de la ciudadanía. La crisis sanitaria y económica son prioritarias, sí, pero también están directamente relacionadas con el nivel de autogobierno y con el modelo de gobernanza. Necesitamos **herramientas para dar las respuestas** que queremos y necesitamos a las cuestiones que afectan a nuestras vidas y a nuestra comunidad.

Nuestra intención es promover en las próximas semanas y meses discursos y prácticas vinculadas a esta idea y relacionarlas con la petición de instrumentos de decisión y **la recogida de firmas** a favor del referéndum. En concreto, de cara al otoño, las principales acciones son dos:

- **31 de octubre:** Acto cultural-político. Lo grabaremos por la mañana y lo emitiremos por la tarde. Nuestro objetivo es, movilizar los grupos locales, por ejemplo, organizando proyecciones o actividades propias.
- **Octubre - noviembre:** reuniones y presentaciones, así como charlas telemáticas en colaboración con agentes de Hamaika Gara. Fomentar la recogida de firmas y vender las pulseras y el *merchandising*.

Dicho todo esto, sabemos que no será la mejor época para fomentar la acción colectiva. De hecho, podemos predecir que nos van a poner muros y murallas. En consecuencia, además de nuestros objetivos más propios, muchas veces nos tocará **defender los derechos civiles y políticos**. De todos modos, nosotras tenemos claro nuestros objetivos y, estamos preparadas para explorar y recorrer nuevos caminos.

devolver ese dinero que les corresponde más adelante). **A la mayor brevedad posible se repondrá el salario íntegro a los trabajadores.**

La Dirección de Gure Esku ha decidido aplazar dos contrataciones que teníamos previstas. La contratación de los responsables de Nafarroa y Gipuzkoa se retrasará por lo menos hasta enero. En los próximos meses estas carencias se cubrirán entre los demás liberados.

La incertidumbre generada por el Covid-19 también ha afectado a Tripontzia y hemos decidido tomar medidas conservadoras, hemos adaptado el planteamiento del Tripontzia.

Características generales:

- Fecha de sorteo: 2021-01-18
- Precio del boleto: 5€
- Cada número tiene 8 series, 25.000 números
- 52.000€ en premios

Esta adaptación viene de la preocupación que genera la incertidumbre que estamos viviendo. Ante la situación económica de Gure Esku, **hemos decidido reducir el número de premios y el dinero que repartíamos.** Un premio principal de 30.000 euros al número y serie ganadora, 2.000 euros al resto de series de ese número y 1.000 euros a cada serie de un segundo número.

Aportación a la cultura

Esta situación es muy dura para todos y todas y Gure Esku es consciente de ello. **Tripontzia nació con la ambición de que,** además de financiar la actividad de Gure Esku, **se convirtiera en un eje financiero para los proyectos de soberanía de este país.** Y nos parece que es el momento adecuado para dar ese paso.

Por ello, **una parte de los beneficios irá a un proyecto cultural.** Esta parte se destinará a un proyecto que refuerce el ecosistema cultural y aporte una visión estratégica a todo su conjunto. De hecho, Gure Esku forma parte de este ecosistema.

Por otro lado, el año pasado nos surgió una oportunidad; las ikastolas de Etxarri y Beasain querían vender Tripontzia en sus redes. Hicimos un acuerdo de colaboración: **por cada boleto vendido por ellos se les daba un euro y medio.** Ambas experiencias fueron exitosas y la ikastola de Beasain ya nos ha comunicado su intención de repetir este año. **Nos gustaría profundizar en este camino,** por lo que en el caso de que surja alguna oportunidad parecida, poneos en contacto con la Dirección para facilitarla.

NORMA INTERNA PARA RANOVAR LA DIRECTIVA

Lorea Hernandez

La Dirección de Gure Esku siempre ha sido un espacio abierto. A medida que los y las compañeras nos hemos implicado en el movimiento y hemos mostrado tal interés, nos hemos ido sumando de una manera muy natural. En cualquier caso, quisiéramos **facilitar que se vayan dando relevos** y que diferentes miembros de los grupos locales **participen** en la Dirección. Por ello, y tal y como se dijo el año pasado en la asamblea del Euskalduna, hemos completado el Norma Interna para Renovar la Directiva. Es la siguiente:

Las personas miembro del Consejo son escogidas por los socios y socias con derecho a voto de acuerdo con el proceso electoral que se desarrolla a continuación. Dichos cargos serán nombrados por un periodo de 4 años, salvo revocación expresa por la Asamblea General, en los términos que señalan nuestros estatutos. Pasados los 4 años los cargos deberán ser reelegidos. Como norma general, se celebrarán elecciones cada 2 años para la elección de la mitad de los miembros del Consejo, pudiendo desarrollarse procesos de cobertura de bajas anuales.

A) CONVOCATORIA DE ELECCIONES

El Consejo ha de convocar la Asamblea general y anunciarla, con una antelación mínima de 30 días a la fecha de celebración, que ha de tener lugar en sábado o en un día festivo en toda Euskal Herria. Los plazos se cuentan en días naturales. La junta directiva decidirá en el momento de la convocatoria cómo se llevará a cabo el proceso electoral: el horario de la votación, la constitución de las mesas, los criterios para determinar la validez de los votos...

En el momento de la convocatoria, el Consejo nominará una Comisión Electoral formada por la secretaría, que no sale a elección (en caso de que este cargo salga a elección, será la tesorería, y viceversa) y dos vocalías escogidas por el Consejo. La Comisión Electoral se encargará de velar por que se cumpla este reglamento. La convocatoria de elecciones debe concretar necesariamente el orden del día, el día y hora en que se celebrarán las votaciones, si hubiera opción telemática y los cargos a cubrir. En ese respecto, a la hora de decidir los cargos a cubrir, se deberá garantizar la igualdad de género y tener en cuenta los criterios de territorialidad, estableciendo mínimos en unos y otros. Así, en función de los miembros que hubiera en cada momento, se determinarían los

números mínimos de uno y otro criterio. Esta convocatoria se enviará a las socias y socios a través de los medios de comunicación de la entidad. En la misma fecha de la convocatoria, se depositará en la secretaría de la Asociación la lista de los socios y socias con derecho a voto.

B) PRESENTACIÓN DE LAS CANDIDATURAS

Para presentar una candidatura, es necesario que las personas que forman parte sean socias, con una antigüedad mínima de 6 meses, y tengan derecho a voto. Las candidaturas podrán ser incompletas y el sistema de votación será el de listas abiertas. Los candidatos o candidatas que forman parte del Consejo deberán renunciar a su cargo antes de formar parte de una candidatura. El escrito de la lista que presenta candidatura debe contener los nombres de los candidatos y candidatas, los cargos a los que optan y su firma. Este escrito se presentará en la secretaría de la Asociación en el plazo de diez días a contar desde la convocatoria. Cada candidatura puede nombrar una persona interventora y una persona suplente que la representen en la Mesa Electoral. Ambas personas deben ser asociadas con derecho a voto y no pueden ser candidatas. Las candidaturas que se presentan formalmente tienen derecho a comunicar su programa de trabajo a los socios y socias antes de las elecciones a través de los medios de comunicación de la Asociación. El Consejo, a propuesta de los candidatos, debe hacer llegar a los y las socias los programas y otras comunicaciones que sean razonables.

C) LA APROVACIÓN DE LAS CANDIDATURAS

Transcurrido el plazo de presentación de las candidaturas, el Consejo, a propuesta de la Comisión Electoral, aprueba las listas que reúnan los requisitos del proceso electoral, las hace públicas y deniega la validez de las que no cumplan los criterios establecidos en el proceso electoral. Quince días antes de las elecciones se hace público el proceso electoral a través de los medios de comunicación de la entidad.

D) LA VOTACIÓN

En el momento de la aprobación de las candidaturas se informa de los horarios y días que se puede ejercer el voto presencial en las sedes territoriales de la entidad (o los puntos que se designen en el momento de la convocatoria). El día que se realice la Asamblea General únicamente se podrá votar en el lugar donde se desarrolle la Asamblea. El primer día de la elección se constituyen las Mesas Electorales con la siguiente distribución: la persona que ostenta la presidencia o

vicepresidencia de la Asociación, como presidente de la Mesa; la persona que ostenta la secretaría, como secretaria o secretario de la Mesa; y otros dos miembros de la Junta Directiva, así como, si están presentes, los Interventores nombrados, o en su caso, las personas que los puedan suplir. Seguidamente, se inicia la votación, durante la cual siempre debe haber presentes al menos dos de los miembros de la mesa electoral. Si la presidencia se ausenta, designará alguien que haga sus funciones durante su ausencia. Únicamente se puede votar mediante las papeletas que edita la Asociación u otras vías que designe el Consejo en el momento de hacer la convocatoria. Los y las socias deben acreditar su identidad con un documento acreditativo oficial que sea suficiente a criterio de la mayoría de personas miembros de la Mesa. La Mesa debe comprobar que el votante figure en el listado de socios y socias con derecho a voto. La votación se cierra a la hora establecida en la convocatoria. En el caso de que sólo se presente una candidatura, el horario de la votación se puede reducir a criterio de la Junta Directiva. Llegada la hora, la presidencia de la Mesa Electoral declara finalizada la votación y seguidamente, las personas que forman parte de la Mesa, las que hacen de interventores y de suplentes emiten el voto. Se procede al escrutinio y el recuento de votos.

E) PROCLAMACIÓN DE LA CANDIDATURA

Finalizado el escrutinio, se levanta el acta correspondiente, firmada por las personas que conforman la Mesa y por las que hacen de interventores y las personas suplentes. La presidencia de la Mesa hace público el resultado y proclama los candidatos y / o candidatas que han obtenido más votos para cada cargo. Si alguna candidatura no estuviera conforme con el resultado, dispondrá de dos días para interponer recurso ante la Comisión Electoral y esta dispondrá de otros dos días para resolver el asunto y publicar la decisión.